



Nafarroako toki administrazioa, 2017



2019ko azaroa



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA	4
II.1. Antolamenduzko egitura.....	4
II.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak.....	7
II.3. 2017an onetsitako araudia	8
III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	9
IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-OROTIDAZKIA	11
V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA.....	15
V.1. Diru-sarrerak	15
V.2. Gastuak	16
V.3. Adierazleak eta magnitudeak.....	17
V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak	19
VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA	21
VII. 9.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALEN EGOERA EKONOMIKO FINANTZARIOAREN ANALISIA	24
VIII. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	27
1. ERANSKINA TOKI ENTITATEEI 2017KO EKITALDIAN APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA	30
2. ERANSKINA NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGOERA FINANTZARIOA 2017AN	35





I. Sarrera

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Kontuen Ganberak urtero igorriko die laburpen-oroitidazki bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jarduerei buruzkoa.

2017ko ekitaldiari buruzko txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, toki sektore publikoaren antolamendu-egitura eta 2017an onetsitako arau nagusiak erakusten ditugu. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak erakusten ditugu. Laugarren ataletik zortzigarren atalera 2017. urteari buruzko honako alderdi hauek jaso dira: Kontuen Ganberak toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio-jarduketan oroitidazkia, haren egoera finantzarioa, toki entitateen kontratazio administratiboa, eta 9.000 biztanletik gorako udal-tako zenbait alderdiri buruzko analisia. Azken epigrafeak egindako lanetik ateratako konklusio eta gomendioak jasotzen ditu. Txostenarekin batera, gainera, bi eranskin badaude, honako hauek biltzen dituztenak: Nafarroako toki entitateei 2017an aplikatzekoa zaion araudia eta toki sektore publikoaren 2017ko egoera finantzarioari buruz Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena.

Lana 2019ko urrian egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzaren-gatik.





II. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia

II.1. Antolamenduzko egitura

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarritzko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoak dira, halaber:

- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Herri-ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak. Bardeako Elkartea, Aezkoako Elkartea, Erronkaribarko Mankomunitatea eta Zaraitzuko Unibertsitatea eta gainerako udalbatzak.
- Mankomunitate edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Udal-batasunak, zerbitzu komunak ematea eskatzen dutenak, dauzkaten ezaugarriengatik.
- Administrazio-barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek borondatez osatutakoak.
- Toki partzuergoa: 2014ko abendutik, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzen duen 23/2014 Foru Legearen bitartez, partzuergoak sartu ziren toki entitate gisa. Halere, toki entitatetzat jotze horrek Estatuarekiko gatazka bat sortu zuen; geroztik “Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaz Batzordeak” honako erabaki hau hartu zuen 2015eko irailaren 9an:

“a) 23/2014 Foru Legearen 3.1.f; 212.4 eta 5. artikuluek toki entitatearen izaera aitortzen diete toki partzuergoei. Nafarroako Foru Komunitateak konpromisoa hartzen du lege-gintzaldi honetan lege hori aldatzeko, halako moduz non araua egokituko zaion Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen azken xedapenetatik bigarrenean xedatutakoari —hartan zehazten da partzuergo bakoitza administrazio publiko bati atxikiko zaiola— bai eta estatuko oinarritzko legeriaren gainerakoari ere, halako moduz non toki partzuergoak ez diren Nafarroako toki entitate gisa aitortuko.”

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi izanak berekin ekarri du partzuergoak toki entitate gisa desagertzea, eta horrekin bete egin da Nafarroako Foru Komunitatearekin hartutako konpromisoa, arestian aipatutakoa.





Honako hau da toki entitateen kopurua, 2017ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

Toki entitatea	2013	2014	2015	2016	2017
Udalak (1)	272	272	272	272	272
Kontzejuak	348	347	347	346	346
Mankomunitateak	65	65	63	63	62 (2)
Udal-batasunak	18	19	19	20	23
Guztira	703	703	701	701	703

(1) 60 udal konposatuak dira

(2) 3 mankomunitatek ez dute jarduerarik

2016. urtearekin alderatuta, baja eman du Nafarroako Erdialdeko Kirol Mankomunitateak. Udalen batasunetatik, berriz, honako hauek eman dute alta: Burgi, Bidankoze eta Gardeko Udalen Batasunak; Doneztebeko eta Elgorriagako Udalen Batasunak, eta Auritz, Orreaga eta Erroibarko Udalen Batasunak; horiek guztiak idazkaritza-zerbitzurako batasunak dira.

2013tik 2017ra doan aldian, honako hau da erakunde autonomoen, tokiko enpresa publikoen, tokiko fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:

Entitatea	2013	2014	2015	2016	2017
Erakunde autonomoak	66	65	65	64	63
Enpresa publikoak	50	54	55	54	53
Fundazio publikoak	9	9	9	9	8
Partzuergoak*	16	15	15	15	17
Guztira	141	143	144	142	139


* Dauden partzuergo guztiak sartu ditugu

2016. urtearekin alderatuta, eta erakunde autonomoei dagokienez, honako hauek eman dute alta: Zaraitzu Ibarreko Musika Eskola eta Malerrekako Mankomunitatearen menpeko ura kudeatzeko erakunde autonomoa. Honako hauek, berriz, baja eman dute: Uharteko Kirol Patronatua, Valtierra Centro Cívico La Esperanza eta Vianako Nuestra Señora de la Gracia. Azken horri dagokienez, argitu beharra dago gaizki sailkatuta zegoela erakunde autonomo gisa, zeren eta fundazio bat baita.

Enpresa publikoei dagokienez, 2016. urtearekin alderatuta, beste hiru gehitu dira: Esteribarko Zubilan Servicios Varios SL, Antsoingo Idakirolak SL eta Bizkarmendia SLU. Horretaz gainera, lau baja izan ditugu: Sociedad Urbanística Municipal de Burguete SL, Huarte Mokarte Subterráneos SL, Urarte Desarrollo Urbano SA eta Sociedad Municipal de servicios Puente la Reina Garés SA.


Partzuergoei dagokienez, bi alta egon dira 2016. urtearekin alderatuta: Orreagako Musika Eskolaren Partzuergoa eta Sunbillako Antzinako trenbidea udal mugapean kudeatzeko Partzuergoa.





Azkenik, fundazioetan izan diren aldaketei dagokienez, Buldain Fundazioaren baja ageri da.

Aurreko datuak kontuan hartuta, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2017ko abenduaren 31n:



2017ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalerrien biztanleria —errola ofizialeko datuen arabera, 643.234 biztanlekoa— honela zegoen banatuta:

Biztanleria-tartea	Udalerrien kopurua	Udallerriak, guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	Biztanleria, guztizkoaren gainean (%)
<100	42	15	2.542	0,4
100-200	54	20	7.658	1,2
201-500	57	21	18.654	2,9
501-1.000	36	13	26.226	4,1
1.001-2.000	22	8	30.117	4,7
2.001-3.000	24	9	59.194	9,2
3.001-5.000	15	6	57.580	9,0
5.001-10.000	11	4	79.456	12,4
10.001-20.000	7	3	88.830	13,8
20.001-30.000	2	1	40.541	6,3
30.001-50.000	1	0,4	35.298	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,4	197.138	30,6
Guztira	272	100	643.234	100





Aurreko datuetatik, nabarmendu behar dugu Nafarroako udalen ehuneko 69k (189 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dituztela, eta biztanle guztien ehuneko 30,6 Iruñean bizi direla.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak dituztenez giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte, eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak efizientziaz, ekonomiaz, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

II.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak

Ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 2016ko txostenean gai honi buruz aipatutako aurrekariak indarrean jarraitzen dute. Txosten horretara jotzea gomendatzen dugu.

2016ko otsailean, Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiatu zuen Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa berria definitzeko. Prozesu horretan, parte hartu zuten Toki Administrazioaren Zuzendaritza nagusiak, toki entitateek (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin), talde parlamentarioek eta arloko hainbat aditu eta aholkularik.

Aurreko prozesuaren emaitza gisa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren urriaren 24ko 406/2017 Foru Aginduak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen aurreproiektua egiteko prozedura abiatu zuen, eta azkenik, 2018ko uztailaren 4an kasuko foru lege proiektua igorri zitzaion Parlamentuari.

Prozesu horrek berekin ekarri du 2019ko otsailean Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea onestea.

Lege horrek toki antolaketa berria zehazten du, zeinean toki entitateen mota berriak agertzen diren eta gaur arte egon diren beste batzuk desagertzen diren. Berritasunik aipagarriena da eskualdeak sortzen direla, udalez gaindiko toki entitate gisa, eta eskualde horiek beren gain hartuko dituztela gaur egun mankomunitateek dauzkaten eskumen batzuk. Haiak sortzeko izapideak hasteko epea 2020ko abuztuaren 6an hasiko da.

Erreformataren ondorioz, zerbitzu administratiboen batasunak, barruti administratiboak eta tokiko partzuergoak desagertzen dira; azken horiek entitate publikoak izanen dira.

Nolanahi ere, arau hori onetsi izanak aldaketa normatiboak egiteko epe bat zabaltzen du, eta aldaketa horiek toki erreformataren behin betiko forma zehazten joango dira.





II.3. 2017an onetsitako araudia

Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateei aplikatzekoa zaien araudia txosten honekin batera doan 1. eranskinean ageri da. Ondoren, sektore honi aplikatzekoak zaizkion eta 2017an onetsi diren arau garrantzitsuenak zehazten ditugu:

- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 18/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituena 2018. eta 2019. urteetarako.
- 19/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 21/2017 Foru Dekretua, martxoaren 29koa Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Ordainsariei buruzko Behin-behineko Erregelamendua onetsi zuen uztailaren 4ko 158/1984 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onetsi zen.
- 84/2017 Foru Agindua, otsailaren 16koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako klausula soziala aplikatzeko modua arautzen duena.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.





III. Helburua, norainokoa eta mugak

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio jardueren 2017ko ekitaldiko laburpena egitea.
- Nafarroako toki entitateen 2017ko kontratazioa aztertzea.
- Nafarroako toki entitateen 2017ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- 9.000 biztanletik gorako udalen 2017ko egoera ekonomiko finantzarioa aztertzea.
- Toki entitateen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.
- Lanaren norainokoak toki entitateen 2017ko ekitaldiko kontu orokorra hartzen du; honako hauek osatzen dute kontu hori:
 - a) Entitatearen beraren (udala, kontzejua nahiz mankomunitatea izan) kontu orokorra, bai eta haren erakunde autonomoena ere.
 - b) Merkataritzako elkarteenak, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.
 - c) Eranskinak.

Halaber, Lurralde Kohesiorako Departamentuak finantza-egoerari buruz egindako txostena berrikusi dugu¹.

Toki sektore publikoaren egoera finantzarioaren analisia egiterakoan, gure lanerako muga bat izan da informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekonturik ez edukitzea 2017ko ekitaldiko beren kontu orokorra Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari 2019ko ekainaren amaieran bidali gabe zeuden toki entitateei buruz; honako hauek dira, hain zuzen:

- 272 udaletatik, lau: Beintza-Labaien, Imotz, Orkoien eta Urzainki. Udal horiek 4.657 biztanle dituzte guztira; horrek populazio osoaren ehuneko 0,72 egiten du.

¹ 2019ko uztailetik aurrera Departamentuak hartu duen izena.





- 2017an zeuden 346 kontzejuetatik 24: Anotz, Aos, Arlegi, Azterain, Biztari, Zenborain, Zizur Txikia, Etxaleku, Etxarri, Gazolatz, Goldaratz, Jauntsarats, Lapoblación, Larraiotz, Muskitz, Olaz, Oloritz, Oskotz, Paternain, Undio, Untzu, Zarikiegi, Zarrantz eta Zubiri. Kontzeju horien populazioa 5.498 pertsonakoa da, eta Nafarroako guztizko populazioaren ehuneko bat egiten du.

- 85 mankomunitate eta batasunetatik, bost entitate; honako hauek, hain zuzen: Ezkabarte-Olaibarko Udalen Batasuna; Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea; Los Arcosko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea, eta Orreaga Kirol Mankomunitatea.

Bestetik, zehaztu beharra dago finantza-egoerari buruzko aipatutako azterketa egiten dela toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontu-datu bateratuekin. Ez da informaziorik jasotzen sozietate publikoei, fundazio publikoei eta partzuergoei buruz, salbu eta zorpetzeari buruzko analisian, horretan udalen eta mankomunitateen menpeko sozietateei dagozkien datuak jasotzen baitira.

Norainokoak muga hau izan badu ere, informazio faltaren ondorioz, uste dugu gure lanean lortutako konklusioak, datu horiek eduki izan bagenitu ere, ez zirela oso desberdinak izanen.





IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-oroitidazkia

Kontuen Ganberak ondoko hiru udalen 2017ko kontu orokorraren erregular-tasuna (finantzena eta legezkontasunarena) fiskalizatu zuen: Iruña, Barañain eta Fitero.

Ondoren, toki entitate horiei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Toki entitatea	Txostenaren data	Populazioa 2017-01-01	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2017-12 31n	Menpeko entitateak			
						Erakunde autonomoak	Enpresa	Fundazioa	Ente publikoa Enpresa
Iruña	2018/12/14	197.138	199.620.015	198.960.850	1.881	2	5	1	
Barañain	2019/4/11	20.124	14.664.154	15.191.938	162	2		1	
Fitero	2019/4/1	2.034	2.504.635	2.556.313	31	1			
Fiskalizatutako udalerriak, guztira		219.296	216.788.804	216.709.101	2.074	5	5	2	0

Fiskalizatutako entitateei buruzko datu nagusiak eta Nafarroako toki sektore publikoa osoa alderatzen baditugu, honako hauek dira emaitzak:

- Fiskalizatutako enteak Nafarroan 2017an daudenen ehuneko 0,4 dira, baina haien biztanleria guztizkoaren ehuneko 34 da.
- Auditoretza egin zaien entitateen diru-sarrerek Nafarroako toki sektore publikoaren diru-sarrera guztien ehuneko 28 egiten dute, eta gastuek, berriz, ehuneko 29.
- Fiskalizatutako udal horien menpeko erakundeak tokiko sektore publiko osoaren ehuneko hamar dira, partzuergoak kontuan hartu gabe.

Finantzen eta legezkontasunaren fiskalizazioen helburua da honako hauei buruzko iritzi bat ematea:

- Finantza-auditoretzako iritzia: ea kontu orokorrak, bere alderdi adierazgarri guztietan, irudi fidela ematen zuen ondareari buruz, aurrekontuen likidazi-oiari buruz eta toki entitatearen 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz; bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruarekin bat, eta bereziki, hartan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat.
- Legezkontasuna betetzeari buruzko iritzia: ea Udalaren 2017ko ekitaldiari dagozkion finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoaren kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu ziren.





Txosten hauei buruzko iritziari dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak:

a) Finantza-auditoretzaren iritzia aldekoa izan zen, baina salbuespen batzuk izan ziren hiru erakundeetan. Honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Ibilgetu materialaren saldoa ez dago eguneratutako inbentario batean (erakunde batean).
- Diruzaintzako gerakinean ez dira jasotzen bilketa zaileko saldoak (erakunde batean eta haren erakunde autonomoan).
- Ez daude kuantifikatuta, ez kontabilizatuta ere, montepioko langileen pensioetatik datozen betebeharrak aktuarialak (entitate bat).
- Behin betiko kredituak gainditzen dituzten gastuak kontabilizatu dira, dagokion aurrekontu-aldaketa onetsi gabe (erakunde batean eta haren erakunde autonomoan).
- Aurrekontu-emaitza doituaren kalkuluan, ez dira kontuan hartu diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak (erakunde batean).

b) Legezotasuna betetzeari buruzko auditoretzaren iritzia aldekoa izan zen bi erakundetan, eta hirugarrenean aldekoa izan zen udalarentzat eta haren erakunde autonomoentzat, eta aurkakoa haren Fundazioarentzat. Kasu honetan, honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Kontratazio publikoari buruzko araudia ez da aplikatzen zerbitzu-kontratuen izapidetzean eta adjudikazioan.
- Langileen kontratazioan, ez dira errespetatu berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.
- Barne-kontrolaren arloko ahulezia aipagarriak daude, batez ere diruzaintzan, fakturazio-prozeduretan eta esparru batzuetako kontratu eta alokairuetan.
- Ez dira bete hornitzaileei ordaintzeko legezko epeak, abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasota agertzen direnak, zeinaren bidez merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen baitira.

Honako hauek dira Ganbera honek entitate horien fiskalizazioan 2017ko txostenetan jaso dituen gomendio nagusiak:

- *Aurrekontuak eta Kontu Orokorra legeria indardunean ezarritako epeen barruan onestea (bi entitate).*
- *Aurrekontuaren espedientea osatzea araudian eskatutako dokumentazio guztiarekin (bi entitate).*





- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea (zortzi entitate).*
- *Kasuko kontratazio-espeditenteak izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta errepikatzen direlako edo daukaten zenbatekoagatik araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan (entitate bat).*
- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak ordaindu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onets dezan (entitate bat).*
- *Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen enplegu-baldintzei buruzko akordioak berrikustea, eta itunak mugatzea udalak esku-mena duen arloetara (bi entitate).*
- *Kasuko lan-eskaintza publikoak onestea eta lanpostu hutsetarako deialdiak egitea Estatuko aurrekontuei buruzko lege orokorretan ezartzen diren berrezarpen-tasen eta enplegu-egonkortze tasen ahalbideen arabera (hiru entitate).*
- *Hurrengo lan-eskaintza publikoetan, plantilletan subrogatu diren zerbitzuetako plazak sartzea, aldi baterako eta salbuespenezko egoera bati erantzuten dioten neurrian (entitate bat).*
- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla egiazko premietara egokitzen den egiaztatze (entitate bat).*
- *Berrikus eta azter daitezela izendapen bera duten lanpostuetarako bi araubide juridiko desberdin egoteak ekartzen dituen ordainsari-diferentziak (entitate bat).*
- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea (entitate bat).*
- *Kontu-hartzaitzak egitea Udalean kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola, tokiko aurrekontu-esparrua betez, bai eta erakunde autonomoetako eraginkortasunaren kontrola ere (bi entitate).*
- *Udalak bere erakunde autonomoen jardueraren gainean egin behar duen barne-kontrola behar bezala bermatuko duten prozedurak diseinatzea (hiru entitate).*





- *Udal-ondasunen inbentarioa onestea, eta haren etengabeko eguneratze eta kontabilitate-jarraipena bideratuko dituzten prozedurak diseinatzea (entitate bat).*

- *Lurraren gaineko kontribuzioa ordaindu behar duten ondasunen balorazio-txostena berrikusi edo amaitzea (hiru entitate).*

- *Tasa bakarra aplikatzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, legeria indardunean ezarritakoari jarraituz (entitate bat).*

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokienez, oro har, araudiak ezarritako baldintza guztiak bete zituzten entitateek, kasu hauetan izan ezik: Iruñeko Udalak ez zuen gastu-araua bete, eta horrek ekarri zuen plan ekonomiko finantzario bat onetsi eta izapidetu behar izatea. Barañaingo Udalak ez du kalkulatu, ezta argitaratu ere, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea; beraz, ezin izan zen zehaztu arau hori betetzen den ala ez. Azkenik, Fiteroko Udalak ez zituen bere datuak bere erakunde autonomoaren datuekin finkatu, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak kalkulatzeko. Ganberak datu bateratuekin egindako kalkuluaren arabera, udal horrek ez du gastu-araua betetzen.

Bestalde, Kontuen Ganberak toki sektoreko entitate batzuen 2017ko jardueran eragina zuten zazpi txosten egin zituen, honako gai hauei buruz:

- *Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietate publikoaren langile-kontratazioa, 2012tik 2017ra.*

- *Toki ogasunek tributuetan parte hartzeko funtsa (2009-2018).*

- *9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruzkoa.*

- *9.000 biztanletik gorako udalen gomendioen jarraipena.*

- *Nafarroako toki entitateetako Kontu-hartzaitzako langileek 2017an egindako eragozpen-oharrak.*

- *Oncineda alderdiari buruzko hirigintzako desjabetze-hitzarmenak (Lizarako Udala).*

- *Mairagako Mankomunitatearen uraren goi horniduraren sistema hautatzea.*





V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera

Toki sektore publikoaren 2017ko txostenean, zeina txosten honen 2. eranskinean jaso baitugu, toki entitateen eta beren erakunde autonomoen (udalak, kontzejuak, mankomunitateak eta elkarte tradizionalak eta udalen batasunak) informazio bateratua aurkezten da.

V.1. Diru-sarrerak

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontu-betetzea:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak (2017)	Diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)	Betetzea (%)	Diru-sarreraren aldea, 2017/16 (%)
1 Zuzeneko zergak	184,43	186,33	23,95	101	-5
2 Zeharkako zergak	15,72	19,97	2,57	127	7
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	150,65	159,11	20,45	106	1
4 Transferentzia arruntak	309,67	307,94	39,57	99	1
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	44,35	43,18	5,55	97	-1
Diru-sarrera arruntak	704,82	716,53	92,08	102	-0,4
6 Inbertsioen besterentzea	10,01	14,59	1,87	146	9
7 Kapital-transferentziak	85,44	36,81	4,73	43	47
Kapitaleko diru-sarrerak	95,46	51,40	6,61	54	34
8 Finantza-aktiboen aldaketa	84,87	6,95	0,89	8	532
9 Finantza-pasiboen aldaketa	17,36	3,25	0,42	19	-3
Finantza-eragiketarako diru-sarrerak	102,23	10,19	1,31	10	129
Diru-sarrerak, guztira	902,50	778,12	100	86	2

Diru-sarreraren 2017rako behin betiko aurreikuspenek 902,50 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 86ko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntan kasuan aurreikusitako ehuneko 102 bete ziren bitartean, nabarmenezkoa da eragiketa finantzarioetatik eta kapitaletik heldu diren diru-sarreraren betetze txikia; izan ere, ehuneko hamar eta ehuneko 54 bete ziren, hurrenez hurren.

2017an, toki sektore publikoaren diru-sarrerak 778,12 milioi egin zuten; horietatik, ehuneko 92 diru-sarrera arruntak izan ziren (transferentziak eta zergak, batez ere). Kapitaleko diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko zazpi dira eta gainerako ehuneko bata finantza-eragiketetatik dator.

2017ko diru-sarrera guztiak 2016koen antzeko mailan mantendu ziren, ehuneko bi soilik handituta; diru-sarrera motaren arabera aldea desberdina izan zen, eta, hartara, diru-sarrera arruntak ehuneko 0,4 jaitsi ziren, eta finantzarioak eta kapitalekoak ehuneko 129 eta 34 igo ziren, hurrenez hurren. Finantza-aktiboen gehikuntza hain nabarmena izatearen arrazoia da, neurri handi batean, Uharteko Udalak ia bost milioi euroko mailegua itzuli duela.

Diru-sarrera guztien ehuneko 86 udalei eta kontzejueri dagozkie, eta gainerako ehuneko 14a, berriz, mankomunitatei eta batasunei.





V.2. Gastuak

Ondoren sektoreak 2017an izan dituen gastuen laburpen bat ematen dugu

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	Gastuak (2017)	Gastuaren guztizkoaren gainean (%)	Betetakoa (%)	2017/2016 aldea (%)
1. Langile-gastuak	285,06	274,38	36,49	96	2
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	282,28	265,02	35,24	94	1
3. Finantza-gastuak	5,08	2,79	0,37	55	-27
4. Transferentzia arruntak	71,18	65,68	8,73	92	-2
Gastu arruntak	643,60	607,89	80,83	94	1
5. Kontingentzia funtsa	0,44	0	0	0	-
Kontingentzia funtsa	0,44	0	0	0	-
6. Inbertsio errealak	192,07	88,72	11,80	46	24
7. Kapital-transferentziak	13,01	8,98	1,19	69	8
Kapitaleko gastuak	205,09	97,69	12,99	48	23
8. Finantza-aktiboaren aldea	3,24	1,76	0,23	54	83
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	45,44	44,69	5,94	98	32
Finantza-eragiketen gastuak	48,68	46,45	6,18	95	34
Gastuak, guztira	897,09	752,03	100	84	5

2017ko ekitaldirako behin betiko kredituek 897,09 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 84 betetze-maila izan dute. Gastu arruntek eta finantza-eragiketekin lotutako gastuek ehuneko 94ko eta ehuneko 95eko betetze-maila izan dute, hurrenez hurren. Aitzitik, kapitaleko gastuen betetze-maila ehuneko 48koa izan zen.

Toki sektore publikoaren gastuak 752,03 milioi eurokoak izan ziren 2017an, eta 2016koak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren; nabarmentzekoak dira langile-gastuak eta ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak, zeinek aitortutako gastu guztien % 36 eta % 35 egiten baitute, hurrenez hurren. Bestetik, inbertsioak gastuen guztizkoaren ehuneko hamabi dira.

2016ko datuekin alderatuta, alde nabarmenenak finantza-eragiketarako gastuetan eta kapital-gastuetan izan dira, ehuneko 34 eta 23 handitu baitira, hurrenez hurren.





Hurrengo taulan gastu horien sailkapen funtzionala erakusten dugu:

(euroak, milioitan)

Funtzioa	Zenbatekoa	Gastuaren guztizkoaren gainean (%)
Erkidegoaren ongizatea	104,45	14
Zerbitzu orokorrak	87,34	12
Hezkuntza	66,36	9
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	66,80	9
Etxebizitza eta hirigintza	59,79	8
Kultura	57,43	8
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	50,06	7
Pentsioak	49,88	7
Zor publikoa	46,23	6
Kirola	41,07	5
Beste batzuk	122,62	16
Guztira	752,03	100

Erkidegoaren ongizatea (hondakinak jaso eta tratatzea, argiteria edo garbitasuna, besteak beste) da 2017an toki sektore publikoan gastu handiena, 104.45 milioi eurokoa (guztizkoaren ehuneko 14), eragin zuen eginkizuna; horren ondoren, izaera orokorreko zerbitzuak datoz, eta ehuneko 12 egin zuten, 87,34 milioi euro hain zuzen.

Gastuen ehuneko 86 udalei eta kontzejuei dagozkie, eta gainerako ehuneko 14a, berriz, mankomunitateei eta batasunei.

V.3. Adierazleak eta magnitudeak

Hurrengo taulan toki sektore publikoan gastatutako 100 euro bakoitzaren bilakaera eta banaketa erakusten dugu, bai eta haien finantziarioa ere:

Gastuaren izaera	2016	2017	Finantziabidea	2016	2017
Langileak	37	36	Tributu bidezko diru-sarrerak	49	47
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	37	35	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	43	44
Transferentzien bidezko gastuak	10	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	7	8
Inbertsio errealak	10	12	Zorduntzea	1	1
Finantza-zama	5	6			
Finantza-aktiboak	1	1			
	100	100		100	100

Ikus daitekeenez, ekitaldi baten eta bestearen arteko aldeak ez dira adierazgarriak, baina ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkien gastuen garrantzia bi puntu jaitsi da; diru-sarrerei dagokienez, tributu-sarreraren garrantzia bi puntu jaitsi da, nahiz eta jaitsiera hori konpentsatuta dagoen transferentzien bidezko eta ondarearen bidezko diru-sarreretan eta beste batzuetan izan den igoerarekin. Tributuen bidezko diru-sarreraren artean, nabarmenezkoa da hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren murrizketa garrantzitsua, zeinaren likidazioa 2017an geldiarazi baitzen Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondoren.





Era berean, transferentzien bidezko diru-sarrereri dagokienez, gehikuntza, nagusiki, Toki Azpiegituren 2017-2019 Planari zor zaio, zeina 2017an hasi baitzen gauzatzen.

Ondoren, toki entitateen finantza-egoeraren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2013tik 2017ra:

(euroak, milioitan)

Adierazleak	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea	Aldea
						(%)	(%)
						2017/13	2017/16
Diru-sarrerak, guztira	741,93	747,88	751,27	765,30	778,12	5	2
Gastuak, guztira	724,57	720,77	732,93	717,40	752,03	4	5
Tributu bidezko diru-sarrerak	344,39	348,96	359,12	371,55	365,41	6	-2
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	336,54	336,54	323,05	332,00	344,75	2	4
Funtzionamendu gastuak	583,27	584,50	591,74	598,92	605,09	4	1
Kapital-gastua	98,9	94,68	79,57	79,69	97,69	-1	23
Aurrekontu-emaitza ez-finantzarioa	45,89	56,02	60,42	78,22	62,35	36	-20
Aurrezki gordina	100,97	110,94	112,95	123,24	111,44	10	-10
Finantza-zama	38,08	39,08	49,89	37,59	47,48	25	26
Aurrezki garbia	62,89	71,80	63,00	85,41	63,95	2	-25
Zorpetze maila	5,57	5,61	7,08	5,23	6,63	19	27
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	14,76	15,83	15,98	17,15	15,55	5	-9
Zorpetze-ahalmena (%)	9,19	10,22	9,19	11,92	8,93	-3	-25
Zor bizia	381,92	337,96	301,39	278,88	228,70	-40	-18
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	142,27	171,28	192,42	226,99	238,45	68	5

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2016arekin alderatuta, gastuak ehuneko 5 igo dira, eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko 2 igo dira. 2013arekiko bilakaerak zeinu bera du; halere, aldearen porzentajea ehuneko 4 izan da gastuei dagokienez eta ehuneko 5, berriz, diru-sarrereri dagokienez.

- Kapital-gastuak 97,69 milioi eurokoak izan ziren, eta 2016ko ekitaldiarekiko hazkunde handiena izan duen gastua da, ehuneko 23ko igoerarekin.

- 2017an, toki sektore publikoak 63,95 milioi euroko aurrezki garbia izan zuen, behin funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordainduta. Aurrezkiak 2013an lortutakoa baino ehuneko 2 handiagoa da; halere, ehuneko 25 egin du behera 2016koarekiko. Jaitsiera hori zor zaio aurrezki gordina jaitsi izanari, bai eta zama finantzarioaren igoerari ere; izan ere, azken hori ehuneko 26 handitu da 2016koarekin alderatuta.

- Nafarroako toki entitateen 2017ko zor bizia 228,7 milioi eurokoa zen, ehuneko 1,54ko batez besteko interes tasarekin; batez beste 10,11 urte gelditzen da epearen muga-eguna iristeko. 2013ko eta 2016ko datuekin alderatuta, ehuneko 40ko eta 18ko jaitsiera izan dela ikusten dugu. Jaitsiera hain nabarmen horiek zor zaizkie, neurri batean, araudiaren betekizunei (2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari bu-





ruzkoa —AEFILO—); izan ere, horien eraginez 2017an 44,6 milioi euro egiten duen zorra amortizatu da; halere, itundutako zor berria 3,2 milioi eurokoa izan zen.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina —sortutako baliabideen soberakina, hurrengo ekitaldietan gastuei aurre egiteko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabil daitekeena— 238,45 milioi eurokoa izan zen 2017an. 2013ko ekitaldiarekiko eta 2016ko ekitaldiarekiko goranzko joera izan zuen, zeren eta ehuneko 68 eta bost handitu baitziren, hurrenez hurren.

V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak

AEFILOren arabera, “Toki Administrazio Publikoa”ren sektoreak honako zergarau hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.

- Gastu-araua, hau da, 2016koarekin alderatuta sektorearen 2017ko gastu zenbakarrian dagoen aldeak, ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 2,1ean ezarri zen ekitaldi horretarako.

- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du sektorearen zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarreraren ehuneko 110a.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Arlo honetan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa toki entitateetara eta haien organismo autonomoetara mugatzen da, kontabilitate nazionalaren terminoetan “Nafarroako Toki Administrazio Publikoaren” sektorea berez egituratu gabe. Datu horien arabera, honako hau aipatu behar dugu:

a) Toki sektore publikoak 2017an izan duen finantzaketa-gaitasuna 59,06 milioi-koa izan da, eta hori aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 21 gutxiago da; horrekin, beraz, arau fiskala bete da, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

(euroak, milioitan)

Finantzaketaren gaitasuna/beharra	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	62,35
Doikuntzak:	
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	(6,44)
Beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziak	3,15
2017ko finantzaketa-gaitasuna	59,06





b) Sektorearen zor bizia 228,7 milioi eurokoa zen 2017ko abenduaren 31n: diru-sarrera arrunten ehuneko 32 da hori. Portzentaje hori legeria indardunean ezarritako ehuneko 110eko mugatik beherakoa da; horrenbestez, arau hori bete egiten da.

c) Ez da informaziorik ematen gastu arauari buruz eta merkataritza-zorra ordaintzeko epeei buruz. Azken arau horri dagokionez, egiaztatu da, Ogasuneko Ministerioaren argitalpenari jarraituz, informazio hori badagoela soilik Nafarroako 55 toki entitateren kasuan; horren arabera, ordainketarako batez besteko epea, ekitaldiko batez bestekoaren arabera, 25,16 egunekoa da; hau da, ezarrita dagoen 30 eguneko mugatik beherakoa.



VI. Kontratazio administratiboa

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteeek 2017an adjudikatutako kontratuak aztertzen ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuen Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Hona toki entitateek adjudikatutako kontratuen oinarrizko datuak:

(euroak, milakotan)

Kontratu-mota	Udalak		Kontzejuak		Batasunak		Mankomunitateak		GUZTIRA	
	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa
Laguntza	137	7.985	2	38	1	24	12	646	152	8.693
Obrak	113	24.461	2	117			8	2.399	123	26.977
Hornidura	50	2.021					9	824	59	2.845
Zerbitzuen emakida	15	542					1	0	16	542
Guztira, oro har	315	35.010	4	155	1	24	30	3.868.798	350	39.057

2017an, toki entitateek guztira 39,06 milioi adjudikatu zituzten 350 kontratutan. Kontratuen ehuneko 43 laguntzakoak dira eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 22 egiten dute. Obra-kontratuak kontratu guztien ehuneko 35 egiten dute; halere, haien zenbatekoak, kasu horretan, guztizko zenbatekoaren ehuneko 69 egiten du.

2017an, toki entitateen menpekoak diren enteeek honako kontratu hauek adjudikatu zituzten:

(euroak, milakotan)

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Fundazioak		GUZTIRA	
	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa	Zenbat	Diru-zenbatekoa
Laguntza	4	211	19	1.396			23	1.607
Obrak	3	428	17	4.886	1	232	21	5.546
Hornidura	5	74	21	2.168			26	2.242
Zerbitzuen emakida	1	3					1	3
Guztira, oro har	13	716	57	8.450	1	232	71	9.398

Nabarmenezkoa da ezen 2017an zeuden 71 kontratuetatik, ehuneko 80 sozietate publikoek adjudikatu zituztela. 8,45 milioi euro egiten dute, eta aldea guztizko zenbatekoaren ehuneko 90 dira. Gainerako kontratuak erakunde autonomoek eta fundazio batek adjudikatu zituzten.

Laburbilduz, 2017an, toki entiteek, eta haien erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek 421 kontratu adjudikatu zituzten, eta kontratu horiek 48,45 milioi eurokoak izan ziren, guztira.

Hona toki entitateek eta haien mendeko enteeek egindako kontratuetan baliatutako adjudikazio-prozedura eta -irizpideak:





	Irekia		Negoziatua, publiziterik gabe			Negoziatua, publizitatearekin	Lehia-elkarrizketa	Murriztua	Proiektuen lehiaketa	Guztira, oro har
	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	Kalitatea-prezioa erlaziorik onena	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	Preziorik merkeena	Preziorik merkeena	Eskaintzarik onena	Eskaintzarik onena	
Laguntza	133	8	2	22	4	1	1	1	3	175
Obrak	73	12	4	42	11			2		144
Hornidura	38	14		17	13			3		85
Zerbitzuen emakida	16							1		17
Guztira, oro har	260	34	6	81	28	1	1	7	3	421

Kontratuen ehuneko 70 prozedura irekiaren bidez adjudikatu zen; kasuen ehuneko 88an eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerako ehuneko hamabian, berriz, preziorik merkeenarena. Halaber, kontratu guztien ehuneko 27 publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu ziren; kasuen ehuneko 70ean eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, kasuen ehuneko 24an, berriz, preziorik merkeenaren irizpidea, eta gainerako ehuneko seian, azkenik, kalitatea-prezioa erlaziorik onenaren irizpidea.

Urteko adjudikazioen diru-zenbatekoak aztertuta, ikusten dugu 421 kontratuen guztizkotik 14 obra-kontratu eta laguntza-kontratu bat 600.000 eurotik gorakoak zirela, eta guztira 16,98 milioi euroko zenbatekoa zutela; sei obra-kontratu eta bi laguntza-kontratu, berriz, 400.000 eurotik gorako prezioan adjudikatu ziren, eta guztira 3,94 milioi egin zuten; azkenik, 32 obra-kontratu, hamar hornidura-kontratu eta zazpi laguntza-kontratu 150.000 eurotik gorakoak izan ziren, eta guztira 11,64 milioi egin zuten.

Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien adjudikazioaren urteko zenbatekoa:

(euroak, milakotan)

Kontratu-mota	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	10	3.723
Obrak	52	26.562
Hornidura	10	2.278
Guztira, oro har	72	32.563

Aurreko analisi bera egin dugu, baina adjudikazioaren gutizko zenbatekoak hartuz, kontratuak irauten duen urteetarako. Hartara, 421 kontratuetatik, 19 kontratu (14 obra-kontratu, lau laguntza-kontratu eta hornidura-kontratu bat) 600.000 eurotik gorakoak dira, eta guztira 21,66 milioi euro egiten dute. Lau kontratu 400.000 eurotik gorakoak dira, eta guztira 1,76 milioira iristen dira (bi laguntza-kontratu, hornidura-kontratu bat eta zerbitzuen emakidarako kontratu bat). Azkenik, 18 kontratu 150.000 eurotik gorakoak dira, eta guztira 4,31 milioira iristen dira (10 hornidura-kontratu, zazpi laguntza-kontratu eta zerbitzuen emakidarako kontratu bat).





Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien esleipenaren zenbatekoa:

(euroak, milako-
tan)

Kontratu-mota	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	13	6.992
Obrak	14	16.161
Hornidura	12	3.841
Zerbitzuen emakida	2	735
Guztira, oro har	41	27.729



VII. 9.000 biztanletik gorako udalen egoera ekonomiko finantzarioaren analisia

Atal honetan jaso dugu 2017an 9.000 biztanletik gorako populazioa zuten udalen egoera ekonomiko-finantzarioari buruz egin dugun analisia, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak igorritako informazioa aintzat hartuz, eta ez dugu hemen aipatutako kopuruen auditoretza egin, Iruñeko eta Barañaingo udalen kasuetan izan ezik.

Ondoren, aztertutako udaletan 2017ko adierazle batzuek ematen dituzten balioak erakusten ditugu:

	Antsoain	Aranguren	Barañain	Berriozar	Burlata	Eguesibar	Lizarra	Iruña	Tafalla	Tutera	Atarrabia	Zizur Nagusia
Aitortutako eskubideak, guztira	8.392.008	10.664.524	15.191.938	6.168.250	18.655.565	14.917.343	12.150.122	198.960.850	10.261.442	34.909.002	9.499.798	10.275.786
Aitortutako betebeharrak, guztira	8.066.463	10.389.544	14.664.154	5.988.737	13.285.268	12.002.986	10.767.669	199.620.015	9.759.458	32.124.527	9.131.779	10.562.557
Diru-sarrera arruntak	8.334.760	9.814.125	15.181.163	6.141.732	12.748.272	12.564.421	11.256.391	191.069.324	9.704.347	34.062.905	8.781.014	10.215.783
Funtzionamendu gastuak	7.341.057	8.176.678	13.696.394	5.613.041	11.903.731	10.157.446	9.452.702	168.545.487	8.820.621	28.449.701	7.366.139	9.710.402
Kapitaleko diru-sarrerak	57.221	850.399	10.775	24.718	5.894.234	627.412	893.731	7.723.012	284.095	846.097	718.783	48.612
Kapitaleko gastuak	608.130	2.212.866	685.010	375.229	1.327.679	1.844.509	1.248.509	16.266.257	437.428	878.682	1.367.620	840.338
Saldo ez-finantzarioa	442.793	274.980	810.534	178.180	5.411.096	1.189.878	1.448.911	12.918.331	730.393	5.580.620	766.039	-286.345
Aurrekontu-emaiza doitua	820.376	698.064	829.154	319.954	808.052	1.908.405	2.030.258	8.646.760	603.957	2.156.583	616.270	545.395





NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENA, 2017KO EKITALDIA

	Antsoain	Aranguren	Barañain	Berriozar	Burlata	Eguesibar	Lizarra	Iruña	Tafalla	Tutera	Atarrabia	Zizur Nagusia
Aurrezki gordina	993.702	1.637.447	1.484.769	528.691	844.541	2.406.974	1.803.689	22.523.838	883.726	5.613.204	1.414.876	505.381
Finantza-zama	113.975	-	282.750	466	45.776	1.031	66.458	14.628.256	501.409	2.796.144	398.020	-
Aurrezki garbia	879.727	1.637.447	1.202.019	528.225	798.765	2.405.943	1.737.231	7.895.582	382.317	2.817.060	1.016.855	505.381
Finantza-zamaren adierazlea	1,37	0	1,86	0,01	0,36	0,01	0,59	7,66	5,17	8,21	4,53	0
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehu-nekoa	11,92	16,68	9,77	8,61	6,62	19,16	16,02	11,79	9,11	16,48	16,11	4,95
Zor bizia	759.988	0	793.750	0	6.625	1.725.510	5.097.010	72.354.390	3.974.880	20.316.201	2.688.347	-
Zorpetze-maila	9,12	0	5,22	7,83	0,05	13,73	45,28	37,77	40,96	59,64	30,62	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.628.525	625.815	7.845.672	2.039.312	-3.345.883	4.385.988	5.783.515	15.110.639	472.765	3.068.958	1.159.403	2.813.965
Autonomia fiskala	60,37	66,96	36,71	50,14	32,08	51,25	48,15	45,34	47,98	53,45	45,56	56,45
Kobrantza zalantzagarriko zordunen adierazlea	69,93	63,72	59,78	72,14	62,46	72,55	91,82	41,31	52,99	59,6	65,45	67,15





Aurreko taulako datuak aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udal guztietan, diru-sarrerak nahikoak dira funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta balio positiboak dituzten aurrezki gordinak ageri dituzte; nahikotasun horri eusten zaio baita finantza-zama deskontatuta ere, eta aurrezki garbiak ere positiboak dira.

- Saldo ez-finantzarioa positiboa da udal guztietan, Zizur Nagusiko Udalaren salbuespenarekin.

- Aurrekontu-emaiza doitua positiboa da, halaber, udal guztietan.

- Aranguren Ibarreko, Berriozarko eta Zizur Nagusiko udalek ez dute zorrik, eta Burlatakoak aipatzeko modukoa ez den zorra dauka, 2018an muga-eguna duena. Zorpetze-maila —zor bizia zati diru-sarrerak arruntak— oso askotarikoa da; hartara, Barañainek ehuneko bosteko adierazlea du eta Tuterakoak, berriz, ehuneko 60ko zorpetze-maila dauka. Nolanahi ere, guztiak zor publikoaren iraunkortasun-arauak ezarritako ehuneko 110etik urrun daude.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa da kasu guztietan, Burlatako Udalaren kasuan izan ezik, horretan 3,35 miloi euroko balio negatiboa ageri baita; halere, magnitudeak hobera egin du 2016koarekin alderatuta.

- Autonomia fiskalaren adierazlea ehuneko 32tik —Burlatako kasuan— ehuneko 67ra —Arangurengo kasuan— bitartekoa da.

Azken batean, oro har, udal horien 2017ko egoera ekonomiko-finantzarioa ona zen; diru-sarrerak nahikoak izan ziren gastu arruntei aurre egiteko, eta behar adina baliabide bazeuden ondorengo ekitaldietan gastuei ekiteko, zeren eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinek, gutxi-asko, balio positiboak baitzeuzkaten. Nabarmentzekoa da, gainera, zorrik ez dagoela, edo, dagoenean, araudian ezarritako mugatik oso beherako balioak dituela.





VIII. Konklusioak eta gomendioak

Honako hauek dira 2017an toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko konklusio nagusiak:

- Toki sektore publikoa 703 toki entitatek osatzen dute: 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta 23 udal-batasun. Toki ente horiek 122 menpeko ente sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 17 partzuergotan parte hartzen dute.

Bere horretan dirau Nafarroako udalen egungo plantaren arrazionalizazio faltaren arazoak, Ganbera honek behin eta berriz adierazi duenak, bai udalerrietako populazioaren dimentsio txikiarenak ere; alderdi horiek eragina dute bai baliabideen zuzkiduran, bai eskumenak kudeatzeko egitura administratibo egoia eta nahikoa falta izatean ere, eta zaildu egiten du zerbitzu publiko efizientek eta kalitatezkoak ematea.

Horri dagokionez, gaur egun, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako Foru Legea onetsita dago, baina eskatzen du arau-aldaketak egin eta onestea, planteatutako erreforma behin betiko zehazten joateko.

- Araudian ezarritako epean kontuak ematearen portzentajea ehuneko 66 ingurukoa da udalen kasuan eta ehuneko 62koa, berriz, kontzejuen kasuan. Ehuneko zazpi eta bederatzi egin du hobera, hurrenez hurren, aurreko urtekoarekin alderatuta. 2019ko irailaren 30ean, kontu-ematea ehuneko 95 ingurukoa zen udalen kasuan eta ehuneko 93koa, berriz, kontzejuen kasuan.

- 2017an, Iruñeko, Barañaingo eta Fiteroko udalak fiskalizatu ziren.

Fiskalizazioetan detektatutako gabezia nagusiak honako hauek dira: gastuen ordainketa, dagokion kontratazio-espeditzea izapidetu gabe, edo kontratuaren indarraldia alde zuzenetik amaitu ondoren; lan-eskaintza publikoak ez onartzea eta baimendutako lanpostu hutsen deialdia ez egitea; eta udalak bere mendeko organismo eta erakundeek garatutako jardueren gaineko barne-kontrolerako prozedurarik ez izatea edo prozedura horiek eskasak izatea.

Halaber, toki sektoreko entitateen 2017ko jardueran eragina zuten zazpi txosten egin ziren, zeinak txosten honen IV. epigrafean zehaztu baitira.

Finantzen egoera bateratuari dagokionez, 2017an diru-sarrerak 778,12 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko bi egin zuten gora 2016koekiko; gastuak, berriz, 752,03 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko bost egin zuten gora. 2013. urtearekiko bilakaerak zeinu bera du, baina diru-sarrerak ehuneko bost igo ziren eta gastuak ehuneko lau.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera garrantzitsuenen osaerari dagokionez, funtzionamendu-gastuak 605,09 milioi eurora iritsi ziren; hau da, 2013an baino ehuneko lau eta 2016koak baino ehuneko bat handiagoak dira. Bestalde, tributu bidezko diru-sarrerak 365,4 milioi eurora iritsi ziren, eta azken urte honetan joera-aldaketa gertatu da aurreko lau urteekiko, 2017an ehuneko bi murriztu





baitira; aurreko urteetako bakoitzean, ordea, diru-sarrera horiek handitzen ari ziren. Jokabide hori bera gertatu da aurrekontu-emaitza ez-finantzarioan, 2013tik lehen aldiz % 20 murriztu baita 2016arekin alderatuta.

Toki sektore publikoak 62,35 milioi euroko emaitza ez-finantzarioa eta 63,95 milioiko aurrezki garbia lortu zituen, bai eta gastu orokorretarako 238.45 milioiko diruzaintza-gerakina ere.

2016ko zor bizia 228,70 milioi eurokoa zen, eta 2013kotik ehuneko 40 jai-tsia zen, eta 2016kotik, berriz, ehuneko 18; toki enteek ehuneko bederatziko zorpetze ahalmena zuten.

Gainera, 59,06 milioi euroko finantza-ahalmena lortu zuen eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 32 egiten zuen, legez ezarritako ehuneko 110eko mu-garen oso behera.

Azken batean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta adierazle ekonomiko-finantzario guztiek aldeko bilakaera erakusten dute; ha-lere, gastu ez finantzarioak egiteko eta zorpetzeko muga batzuk badaude, finan-tza-egonkortasuneko eta -iraunkortasuneko helburuek ezarritakoak. Toki sek-tore publikoa, bere osotasunean, helburu horiek bete egin zituen 2017ko ekital-dian.

- Toki entitateek eta haren menpeko enteek 2017an, guztira, 48,54 milioi euro egiten duten 421 kontratu adjudikatu zituzten; horietatik, ehuneko 42 la-guntza-kontratuei dagozkie (aipatutako kopuru osoaren ehuneko 21), ehuneko 35 obra-kontratuenak dira (guztizko kopuruaren ehuneko 66), ehuneko 20 hor-niduretara bideratu ziren (guztizko kopuruaren ehuneko 11) eta gainerako ehu-neko laua zerbitzu-emakidak dira (guztizko kopuruaren ehuneko bat).

- 9.000 biztanletik gorako populazioa duten udalen 2017ko egoera ekono-miko-finantzarioari buruzko azterketatik, atera dezakegun konklusioa da ezen, oro har, egoera saneatua zela, eta hala aurrezki gordinak nola aurrezki garbiak eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak balio positiboak zituztela. Gainera, 2017ko abenduaren 31n edo zor bizirik ez zegoen, edo arrazoizko ba-lioetan zegoen.

- Toki ogasunei buruzko erregulazioak berrikuspen sakona behar du, aurre-kontuko eta kontabilitateko araubideari, barne kontroleko sistemari eta finan-tzaketa-ereduari dagokienez.

Era berean, Nafarroako tokiko kontabilitatea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren oinarriaren arabera araututa dago, 1990eko uztailaren 17ko Minis-terio Aginduaren bidez toki-administrazioarentzat egindako egokitzearen ara-bera.

Arlo hau dela eta egin den azken eguneratzea 2015ekoa da, toki entitateen aurrekontu-egitura berria onetsi zenekoa. Egitura berri hori araubide komuneko toki entitateek aplikatutakoari egokitzen zaio.





Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko enteen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Honako hauek dira Ganbera honek Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari egiten dizkion gomendioak:

- *Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformari buruzko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsiz hasitako prozesuarekin jarraitzea, eta foru lege horrek jasotzen duen Nafarroako toki administrazioaren berregituraketa osatzeko behar diren legegintza- eta administrazio-neurriak hartzea, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortze aldera.*

- *Tokiko kontabilitatea urgentziaz berritzea eta 2010eko Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea*

- *Toki entitateen eta horien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Tokiko zerbitzuen kostuak eta kudeaketari buruzko adierazleak lortzeko metodologia osatzea.*

- *Toki ogasunen esparrua eguneratzea, hartan jasotzeko toki entitateei aplika dakizkiela araudiaren betekizun eta eskakizunak.*

- *Toki erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoari buruzko araudia prestatzea, beste helburu batzuen artean, ekonomia- eta aurrekontu-kontrol zorrotzagoa lortzeko eta kontu-hartzaitzak toki erakundeetan duen eginkizuna indartzeko.*

- *Behar diren araudia eta prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen tutoretza finantzarioa bete ahal dadin, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa Foru Komunitateko toki entitateei aplikatzeari dagokionez.*

- *Toki entitateek kontuak emateari eta haien edukiari buruzko informazioa Toki Administrazioeko departamentu eskudunaren web-orrian osatzea, Gardentasunari buruzko Legea betetze aldera.*

- *Toki entitateen erregistroa amaitzea sozietate publikoei eta tokiko fundazioei buruzko informazioarekin, eta jada existitzen den informazioa zuzena dela egiaztatzea.*

- *Toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko txostena, Nafarroako Gobernuak egindakoa, osatzea sozietate publikoei, fundazioei eta partzuergo publikoei buruzko informazioarekin.*

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea, araudian ezarritako epean.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta*





eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio-betekizunak bete ditzaten.

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Egungo arau-testuinguruan, gutxitzea, deialdi egokien bitartez, toki entitateetako langileen behin-behinekotasun maila handia.*
- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*
- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintza-hitzarmenen gaineko erregistroa ere.*
- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako he-dapenarekin, menpeko enteen kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrolari dagokionez, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailetza, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*
- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*
- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*
- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea.*
- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. eranskina Toki entitateei 2017ko ekitaldian aplikatzekoa zaien araudia





a) Toki administrazioa eta araubidea

- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 24/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa,
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituen

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifei eta Jarraibideei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa; 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontuari eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorriari eta Kontabilitate Bakunari buruzkoak, hurrenez hurren.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitzako Instrukzio orokorra).
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoa.
- 3/2016 Foru Legea, martxoaren 1ekoa, toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.





- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 21/2016 Foru Legea, abenduaren 21ekoa, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2017ko aurrekontu-ekitaldirako ezartzen dituena.
- 84/2017 Foru Agindua, otsailaren 16koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako klausula soziala aplikatzeko modua arautzen duena.
- 16/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, Zenbait zerga aldatu beste tributuei neurri batzuk hartzei buruzkoa.
- 24/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa,

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen)
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, ondoko hauek aldatzen dituena: irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa, eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzei buruzkoa.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehia-kortasuna sustatzeko.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzei eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzei buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgenteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzei buruzkoa.





- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa.

- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.

- 2016ko irailaren 16ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzeko zaien zuhurtasun finantzarioa.

- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzeko zaien zuhurtasun finantzarioa.

d) Kontratazio administratiboa

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.

- 1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administratiboan agirietan klausula sozialak sartzeko.

- 3/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

e) Langileak

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- 158/1984 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamendua onetsi zuena (martxoaren 29ko 21/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen).

- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onetsi zuena (maiatzaren 17ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen).

- 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

- 12/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen





indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.

- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

- 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena

- 25/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aldatzekoa.

- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistemaren urgentziatzko erreformarakoa.

f) Hirigintza

- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.

g) Dirulaguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

h) Toki entitateen barne araubidea

- Toki entitateen aurrekontuen exekuzio oinarriak, 2017rako.
- Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.
- Berariazko hitzarmen kolektiboak.





2. eranskina Nafarroako toki sektore publikoaren egoera finantzarioa 2017an